

ARTEA ETA DOKUMENTUA EGUNGO ARGAZKIGINTZAN ALDERDI DOKUMENTALAREN LEKUA MINTZAGAI

Arteleku - Tabakalera Sorkuntza Zentroak, Ordoñez Falcón Argazki Bildumaren (COFF) laguntzarekin, **Artea eta Dokumentua** izeneko mintegia antolatu du datorren asterako. Bertan, alderdi dokumentalak egungo argazkigintzan duen lekua izango da aztergai. Hitzaldiak **astelehenetik asteazkenera** izango dira, arratsaldeko **19:00tan** hasita, **KMK**-ko ekitaldi aretoan.

Rosa Olivares kazetari, arte kritikari eta EXIT aldizkariko zuzendariak koordinatutako mintegian dokumentalismoaren eta honek museo eta arte zentroetan duen presentzia geroz eta ohikoagoaren arteko harremana aztertuko dute eta, era berean, artisten artean kontzeptu dokumentalak arte obraren ikuspegitik jorrazteko dagoen joera geroz eta zabalduagoa.

Hitzaldi zikloan kultura bisualean eta bereziki argazkigintzan ibilbide profesional luzea eta nabarmentzekoa duten pertsonak hartuko dute parte. Egunez egun, gonbidatu bakoitzak bere hitzaldia emango du eta ondoren, saioa osatzeko, moderatzaileak galde-erantzunak bideratuko ditu.

Lehenengo egunean, astelehenean, **Carles Guerra** eskainiko du mintegiko ekarpen teorikoa. Kazetaritza argazkigintzari eta orain arte izan duen bilakaerari gainbegiratua botako dio, baita honek dokumentazio soilaz harago doazen helburuetarantz egin duen bideari ere. Carles Guerra arte kritikaria, Bartzelonako Pomeu Fabra Unibertsitateko irakasle laguna eta egun, Bartzelonako La Virreina Centre de la Imatge-ko zuzendaria da. Komisario eta teoriko bezala burutu duen lana argazkigintza dokumentaletik abiatu izan da batik bat. Bere hitzaldiak testuinguru zehatz batera eramango gaitu, non dokumentalismoaren inguruko erakusketak geroz eta leku handiagoa hartzen duten munduko erakustareto eta museo garrantzitsuetan.

Bigarren egunean, argazkilarien txanda izango da. **Cristina García Rodero** eta **José Manuel Navia** eraldaketa garaiotan dokumentalismoaren eta artearen arteko harremana bistaratzen duten bi adibide paregabe dira. García Rodero, beste askoren artean Premio Nacional de Fotografía sariaren jabe denak, liburuaren eta antropologiaren arlotik Veneziako Bienaleko aretoetara edo Harald Szeeman-ek komisariatutako erakusketetan parte hartzera salto egin duen argazkilaria da, nazioarteko errekonozimendu hori jasotzen lehenengoetakoa. José Manuel Navia dokumentalisten talde horretan hurrengo pausoa da. Berdin liburu batera edo erakustareto batera ongi egokitu litekeen argazkigintza egiten du, batik bat bidaietan eta aurrez aurreko esperientzian oinarritua.

Azken egunean, asteazkenarekin, **Begoña Zubero** artista bilbotarrak, arte mundutik abiatuta sortzen den dokumentalismo sinbolikoago eta errepresentazioari hain lotua ez dagoen horretaz hitz egingo du. Memoriaren sendotzea hartzen dute lan ildo nagusi gisa artelana eta funtzio dokumentala aldi berean lantzen dituzte artista garrantzitsuetako askok. Saioa ixteko, mintegiaren koordinatzaileak arte munduko beste dokumentalismo mota batzuk aurkeztuko ditu.

HIZLARIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Astelehena, maiatzak 9

- **CARLES GUERRA** (Amposta, 1965)

Artista, arte kritikaria eta kontserbatzaile independentea. Bartzelonako Unibertsitatean eta New Yorkeko The New School for Social Research-en ikasi zuen. Nazioarteko (Parachute, Art Monthly) eta estatuko hainbat aldizkaritan kolaboratu izan du. 2009az geroztik, Bartzelonako La Virreina Centre de la Imatge-ko zuzendaria da.

Asteartea, maiatzak 10

- **CRISTINA GARCÍA RODERO** (Ciudad Real, 1949)

Bere ibilbide profesionalean Unibertsitateko irakaskuntza eta argazkigintza bateratu izan ditu. Magnum kazetaritza-argazkigintzako agentzia entzutetsuan lanean sartu zen lehen argazkilari espainiarra izan zen. Erakusketak egin izan ditu hainbat herrialdetan, bakarka nahiz taldean, eta bere lanak ere hainbat bilduma iraunkorretan daude, estatuan nahiz beste herrialde batzuetan, besteak beste, Estatu Batuak, Suitza, Venezuela edo Portugal.

- **JOSE MANUEL NAVIA** (Madrid, 1957)

Estatuko argazkilari dokumentalista garrantzitsuenetako bat da. Erreportari lanetik argazkigintza pertsonalago batera bidea egin du. Batik bat argazkigintzaren indar ebokatzalea da interesatzen zaiona, eta honen harremana literaturarekin. Komunikabide garrantzitsuekin kolaboratzen du eta Vu Agentziako kide da 1992tik. Hainbat bildumatan daude bere lanak eta zenbait liburutan eta erakusketetan ere izan dira ikusgai.

Asteazkena, maiatzak 11

- **BEGOÑA ZUBERO (Bilbao, 1962)**

Irudia eta Soinua ikasi zuen Madrileko Universidad Complutense-n eta ikasketak egin zituen New Yorkeko School of Visual Arts-en ere. Bere lana argazkigintza dokumentalaren esparruan kokatzen da, baina joera hori begiradaren ukitu pertsonal poetiko baten bitartez eta konpromiso etiko sendo batekin eguneratzen du. Bere lana hainbat bildumatan dago eta bakarkako nahiz taldeko erakusketatan parte hartu izan du.

Donostia, 2011 maiatzak 6